

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GASTEIZKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2011.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gasteizko Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osokoaren kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala, bere toki erakunde autonomoak, eta udalak gehiengoarekin partaidetutako sozietate publikoak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Gainera, lanaren zabalak erabilera anitzeko udal eraikinaren ordenantza fiskalaren analisia eta erabilera pribatiboa edo jabari publikoko aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasaren aplikazioa, 2008tik 2013ra bitarteko ekitaldietan, biak barne, besarkatu du.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta bere ekonomia-finantzazko jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, aurrekontu eta kontabilitateari dagokionez, 2011ko aurrekontuaren kontura 2010eko ekitaldiari dagozkion gastuak aitortu direla jakinarazi da, 2,2 milioi euro egin dutenak; gastu horiek ezin egotzi izan ziren zegozkion aurrekontuari behar hainbat kreditu ez izateagatik edo gastu egiaztatagiriak 2011n egin izateagatik. Berebat, fiskalizazio gai izan den ekitaldian 2010eko ekitaldiko kreditu geldikinak txertatu dira eta kreditu osagarriak onartu dira, horiek finantzatzeko behar hainbateko diruzaintza geldikinik izan gabe, 3,6 milioi euroren zenbatekoan.

Kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela zenbaitetan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arau edo printzipioak eta ondorioz, guztira 5,1 milioi euroan esleitutako bi kontratutan 0,8 milioi euroren aldaketak egin dira, obrak aldaketa onartu aurretik gauzatu zirela. Berebat, 14,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean, obra kontratuari lotutako zerbitzuaren aldaketetatik bi onartu aurretik ematen ari ziren, guztira 1,3 milioi euroren zenbatekoan.

Diru-laguntzen atalean azpimarratzekoa da bi kirol federaziori lankidetzaz hitzarmenen bitartez 1,1 milioi euroren bi diru-laguntza eman zitzaizkiela; hauetan, diruz lagundutako ekintza bat dator zerbitzu prestazioekin; jokamolde hau ez zaio egokitzen administrazio publikoetan buru egiten duten kontratazio printzipioen aribideari.

Udalaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; nolana den ere, beste hainbat salbuespenen artean azpimarratu du batetik ez duela egoeraren balantzean jasotako zifrak 2011ko abenduaren 31n ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duen ezagutzeko euskarri egokirik; eta bestetik, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz akatsa azaleratu du, Udalaren Diruzaintza Geldikina 23,2 milioi euroan murriztu dutenak.

Erakunde autonomo, enpresa-erakunde publiko eta sozietate publikoei dagokienez, HKEEk legea betetzeari eta Urteko Kontuei buruz eman duen iritzia aldekoa da, nahiz txostenean bertan hainbat ez-betetze eta salbuespen jaso diren.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Erabilera anitzeko eraikinari dagokionez, HKEEk ordenantza fiskalaren gaineko azterketa juridikoa mamitu du, non 2008-2013 aldiaren ekitaldi eta jarduerak bakoitzeko garatutako jarduerak laburbiltzen diren eta bi alderdiei buruzko hainbat ondorio ematen diren; horien artean azpimarratzekoa da 2009-2013 aldiko urte bakoitzerako onartutako tasaren % 90 arteko hobariak ematea ez dagoela arauz babestua, ez baita Foru Arau bidez arautu; bestetik, araudi fiskal bakoitzaren araudiak eskatzen duen onarpen prozedura eta gutxiengo edukia arauzko aurreikuspenei egokitzen zaie.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez ondorioztatu da 2009-2011 aldiaren Udalak ahalegina egin duela gastuari eusteko eta horrek, 2011n izandako diru-sarreraren igogerarekin batean, aurrezki garbiak bilakaera positiboa izatea bideratu duela.